



EB 2024/214

073/2025 Ebazpena, apirilaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren titularrena, URTZI SARATXAGA LOZANOK «Bertsio berriak eskuratzea, erabiltzaileari arreta emateko zerbitzuak ematea eta ePOB, ePAC eta eSTIMA aplikazioen euskarria» kontratuaren adjudikazioaren aurka jarritako kontratazio-arloko errekurtso bereziari buruzkoa.

I.- AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2024ko abenduaren 19an, URTZI SARATXAGA LOZANOK kontratazioaren arloan jarritako errekurtso berezia sartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren (aurrerantzean, KEAO) erregistroan. Errekurtso hori, Basauriko Udalak sustatutako ePOB, ePAC eta eSTIMA (administrazio-espeditenteen kudeaketa, biztanleen erroldaren kudeaketa, administrazio elektronikoa eta zerga-kudeaketa eta zerga-bilketa) aplikazioen bertsio berrien kontratuaren adjudikazioaren, zerbitzu-ematearen eta erabiltzailearentzako arretaren eta euskarriaren (mantentzea) aurka jarri zen.

BIGARRENA: Abenduaren 20an, KEAO honek kontratazio-espeditentearen kopia eskatu zion botere adjudikatzailari, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean, SPKL) 56.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Lege horrek, Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen ditu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak. Dokumentazio hori abenduaren 23an jaso zen.

HIRUGARRENA: Errekurtsoa interesdunei helarazi zitzaizen abenduaren 23an, eta ez da alegaziorik jaso.





II.- ZUZENBIDEKO OINARRIAK

BAKARRA: Errekursoaren onargarritasuna

Botere adjudikatzailleak alegatu du errekurtsogileak ez duela legitimaziorik errekurso berezia jartzeko. Organo honek uste du alegazio hori baietsi egin behar dela, arrazoi hauengatik:

- 1) KEAO honek lehenago adierazi duenez (ikus 126/2020 Ebazpena), «interes legitimoaren» kontzeptuak eskatzen du aurkaratutako egintzek zuzenean edo zeharka eragin ahal izatea, baina modu eraginkorren eta kontrastatuan, hau da, ez soilik modu hipotetikoan, potentzialean edo etorkizunekoan, errekurritzen duen eremu juridikoan; beraz, egiaztatu egin behar da abantaila edo erabilgarritasun juridiko baten titularra izan daitekeela. Hori dela eta, akzio publikoa baztertuta geratzen da, ordenamendu juridikoak baimentzen duen salbuespenezko kasuetatik kanpo. Horrek esan nahi du legitimazioa dutela, errekurtoak aurrera eginez gero, onura ukigarria lor dezaketenek (ikus 92/2016 Ebazpena).
- 2) Aurkaratutako kontratuaren xedea da "bertsio berriak eskuratzea, erabiltzaileari arreta emateko zerbitzuak ematea eta ePOB, ePAC eta eSTIMA aplikazioen euskarria". Errekurtoaren auzia adjudikazioa bera eta baldintza-agiriak baliogabetzea da, azken horiek gaztelaniaz baino ez direlako argitaratu eta kontratuaren xede diren udal-aplikazioek ez dutelako euskarazko dokumenturik sortzen. Errekurtsogilearen legitimazioa agiri horien hartzaile izatean oinarritzen da.
- 3) Aurreko 2) idatz-zatian adierazitakotik ondorioztatzen da errekurtsogileak herritar gisa duen eskubidean oinarritzen duela bere legitimazioa, hau da, botere adjudikatzailleak sortutako informazioa eta dokumentuak jasotzen dituela aurkaratzen den esleipenari dagokion aplikazio informatikoaren



bidez. Aplikazio horrek, bere ustez, ez du betetzen hizkuntza-normalizazioari buruzko araudia; baina, kontratu-akordioak deuseztatzeak ezin dio onurarik ekarri errekurtsogileari, honako arrazoi hauengatik:

- Baldintza-agiriei dagokienez, errekurtsogilea ez da operadore ekonomiko bat eskaintza bat aurkeztuz kontratazio-prozeduran parte har dezakeena, eta, are gutxiago kasu honetan, ezarritako esleipen-prozedura publizitaterik gabeko prozedura negoziatua delako. Beraz, ezin du inolako abantailarik lortu baldintza-agiri berri batzuk euskaraz argitaratzetik, hauek hirugarren bati zuzenduta doazelako.
 - Horniduraren eta bere mantentze-lanen hartzaila Udala bera da, eta kontratuak ez du zehazten edo baldintzatzen zerbitzua herritarrei emateko modua. Beraz, esleipenak ez du eraginik errekurtsogilearen eremu pribatuan. Errekurtsogileak hizkuntza-eskubideen balizko urraketa bat baino ez du salatu, aurkaratzen duen kontratua esleitzetik eratorriko ez litzatekeena.
- 4) Beraz, hortik ondorioztatzen da errekurtsogileak interes bakarra duela: ustez urratu den legezkotasun hutsa berrezartzea. Interes hori ezin da interes legitimoarekin parekatu, eta, beraz, titulu hori ez da nahikoa legitimazio aktiboa oinarritzeko (ikus 13/2018 Ebazpena eta bertan aipatzen den jurisprudentzia).

Azaldutako guztiagatik, SPKLren 46.1 artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2011. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 5/2010 Legearen zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren titularrak honako hau:



EBAZTEN DU

LEHENENGOA: Ez onartzea URTZI SARATXAGA LOZANOK Basauriko Udalak sustatutako kontratu honen esleipenaren aurka jarritako kontratazio-arloko errekurtsio berezia: «Bertsio berriak eskuratzea, erabiltzaileari arreta emateko zerbitzuak ematea eta ePOB, ePAC eta eSTIMA aplikazioen euskarria».

BIGARRENA: Erabaki hau prozedura honetako interesdun guztiei jakinaraztea.

HIRUGARRENA: Ebazpen honen aurka, zeina betearazlea baita, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa baino ezin da aurkeztu (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44.1 artikulua), bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera (JLren 46.1 artikulua), Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren aurrean (JLren 10.1 k) artikulua), SPKLren 59.1 artikulua) arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 29a

Vitoria-Gasteiz, 29 de abril de 2025